

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2014ko azaroa • 297. alea

EUSKARAK
365
EGUN
ABENDUAREN 3AN
19:00ETAN ZUBITIK



Alkarrekin

OREKAN hortz klinika



Eider Unamuno Gandiaga (Soraluze, 1979), 705 Kolegiatu zk.

“Beste ikuspuntu batetik begiraten diogu ahoari”

Irailan zabaldu zuen Eiderrek Orekan hortz-klinika. Odontologiari beste ikuspuntu batetik begiraten diote: ahoak gorputzaren gainerako atalekin duen harremana kontuan hartuz.

Zer da ahoari bere osotasunean begiratzea?

Haginka gaizki egiten badugu, eragin zuzena dauka gorputzeko posturan, liseriketa aparatuan, garezurraren hazkuntzan, sistema neurologikoan, endokrinon eta abar. Ezin gara denean adituak izan baina bai lotura horien berri eduki beste profesional batzuekin elkarlanean jarduteko.

Prebentzio goiztiarrari azpimarratzen duzu?

Bai. Prebentzioa landu behar da. Osasuna mantentzea, gaixotasuna tratatzea baino hobea da. Horregaitik da garrantzitsua umeak txikitatik ekartzea dentista funtzional batengana. 4 urterekin arazo bat ikusten badugu hori da lanean hasteko momentua. Zertarako 12-13 urte arte zain egon hagin denak aldatu arte? Umetan hilabete gutxitan konpondu daitekena, gero urteetako tratamendu bihurtzen da. Gainera hortzak zuzendu daitezke horrela, hezurdura oker hazi bada, gero ez dugu hain erraz zuzenduko.

Zein dira gaitzik aipagarrienak?

Piorrea esaterako. Jaten dihardugula ahoak egiten dituen mugimenduak simetrikoak ez ba-

dira, garbiketa perfektua eduki arren ez da egoera hori aldatuko. Ahoko egoera txar batek eragin ditzake; bururuko minak, migrañak, bertigoak... Min horien jatorria konpontzen saiatu behar dugu.

Zein eragin du ahoak kirol errendimenduan?

Ahoa gorputzarekin ondo lerrokata baldin badago, muskuluek gainkarga gutxiago jasaten dute, lan berdina egiteko gutxiago nekutzen baita gorputza. Ondorioz, lesio gutxiago izaten dira.

Lesio berdina eduki zenezake behin eta berriz, eta jatorria ahoan izan.

Azken gomendioren bat?

Hortzak zuzen izateak ez du esan nahi orekan daudenik. Estetika eta osasuna ez da gauza bera.

- Hortzak zuzentzeko tratamenduak
- Artikulazioko minen tratamendua
- Piorrearen prebentzioa
- Kirol errendimenduaren hobekuntza

Eider Unamuno Gandiaga
Arragueta, 2-bis (behea C)
Eibar
Tel. 943 048 773
orekahk@yahoo.es



AHO ETA GORPUTZEKO
OREKA BERRESKURATU

Edozein adineko pertsonendako
Astelehenetik ostiralera zabalik
Txanda hartu behar da aurrez
Lehen errebisioa doan



Urte osoa euskararendako

Auzotik herrira, euskaltzaleen auzolanetik herri euskaldunera.

Euskaraz bizi nahi duen herriak iraunarazi du euskara. Euskaltzaleen ahaleginik Gabe, nekez izango luke hizkuntzak gaur duen lekua gizartean eta nekez iraungo luke bizi eta indarrez inguruko hizkuntzen artean.

Euskaltzaleen ahalegina eta ekarpenari esker dugu gaur euskaldunon hiztun komunitate bizi eta zabala. Sortu ditugunengatik, bizi eta eragin dugunarengatik gara gaur, komunitatea, euskararen herria egunetik egunera sortzen eta birsortzen duen jendea. Badakigu herrietan antolatzen; asmatu dugu euskaraz ikasteko eskolak eta euskaltegiak sortzen; kultur sorkuntza, eskaintza eta transmisioa euskaratik eta euskaraz egiten dihardugu; aisialdia euskaraz gozagarri egiteko egitasmoak hedatu ditugu; administrazio eta enpresetan euskaraz aritzeko eragile gara; interneten ere .eus komunitatea sortzen ari gara; euskaraz bizitzeko espazioak sortzen eta elikatzen ditugu. Hori da gure ekarpena, euskaltzaleon ekarpena, urtean 365 egunetan.

Aurten ere abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko eguna ospatuko dugu. Eta aurten ere, euskarak 365 egun dituela gogoratu, aldarrikatu, plazaratu eta ospatuko dugu.

Urtean 365 egunetan euskaraz bizitzeko gonbitea luzatu nahi dizugu, gurekin batera, auzotik herrira euskaltzale eta euskaldun agertzeko gonbitea.

Euskaltzaleen Topagunea



Abenduaren 3ko kartela.

Abenduko hitzorduak



ABENDUAREN 3AN, EGUAZTENA

Euskararen Nazioarteko Eguneko 19:00etan Euskaltzaleen katea zubitik eta ostean ospakizuna elkarrekin



ABENDUAREN 5EAN, BARIKAKUA ANTZERKIA

"Euskararen espektakulue. Zergatik praktikatzen dugu sexua erderaz?" Oihan Bega. 22:15ean Antzokian



ABENDUAREN 9AN, MARTITZENA HITZALDIA

Zer moduz doa euskara? Andoni Egaña 19:00etan Antzokian

Antolatzaileak: Euskara aholku batzordea eta Pil-Pilean Euskara Elkarteak.



ABENDUAREN 20AN, ZAPATUA BATU SUTONDORA

Pil-Pilean Euskara Elkartearen Batzar nagusia eta Plaentxia.eus webgunearen aurkezpena 10:00etan hasita Herriko antzokian



1

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarteak. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Sorraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Leire Iturbe eta Egoitz Unamuno **Zuzentzailea:** Leire Ginea **Publizitatea:** Egoitz Unamuno **Diseinua:** Iñigo Uribetxebarria **Maketazioa:** Oier Larreategi
Azala: Ferman Oregi **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIALA



SORALUZEKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gutunak

Soraluzeko EAJ-PNV Udal taldea **Kiroldegiko kudeaketaren inguruan**

2009tik gaur arte, kiroldegiko kudeaketa defizitariora da. Uda garaian 40 egunez itxita egon da eta kirol zerbitzuen ordutegia eskasa da. Erabiltzaileak ez daude ados ordutegi horiekin, aldizkari honetan irakurri ahal izan dugun bezala. Beraz EAJk eginiko kritika, datu objektiboetan eta erabiltzaileen kexetan oinarritzen da.

Zer dago guzti horren atzean? Kiroldegia kudeatzeko bi eredu. Bata, Bilduk babesten duena, Udal kudeaketa zuzena. Bestea, guk babesten duguna, zeharkakoa. Udalak baldintza plegu baten bitartez kiroldegiko kudeaketa konkurtso publikora aterako du. Bertan honako hauek ezartzen dira: egutegia, ordutegia, zerbitzuak, prezioak... Ondoren hainbat enpresak beraien eskaintzak egiten dituzte eta Udalak zehazturiko baldintzetara egokien egokitzen denari emango dio ustiapena. Enpresak kudeaketa egokia egiten duen edo ez, kirol teknikariak kontrolatuko du.

Bi eredu desberdin dira, ez hobe ez txarragoa. Gainera, Bilduk ere enpresa pribatuak kontratatzen ditu Udal kudeaketa publiko gaizatzeko: Udal-erakinen garbiketarako, Udal-zergen ikuskapenak, edota uraren kudeaketa integrala.

EAJren nahia herritarrei ahalik eta kirol-zerbitzu egokiena ematea da, beti ere, udaletxea hipotekatu gabe.

Duintasuneko emakumeok **Azaroak 25... adineko emakumeok ere tratu txarrak jasaten ditugu**

Emakumeen aurkako indarkeria matxista gure gizarteko bidegabekeriarik handienetakoa da. Indarkeria horiek hainbat motatakoak dira: irainak, makurkeriak, laidoak, diruaren kontrola, abusu sexualak... eta gogorrenetakoa den emakumeen erailketa, gero eta sarriago menperatze egoerei lotuta gertatzen dena eta benetako feminizidiotzat jo dezakeguna.

Zer egin dezakegu? Zorigaiztoko drama hau ezkutaturik dago eta publikoki eta politikoki azaleratu egin behar dugu. Gertatzen ari dena ikusgarri egin eta salatu egin behar dugu. Indarkeria hori jasaten duten pertsonen eta sufrizten duten emakumeen bizimodua duina izan dadin irtenbideak eskatu eta aurkitu egin behar dira.

DUINTASUNA plataformako emakumeon kolektiboak ankerkeria honen aurka borrokatzen duten pertsonekin bat egin nahi dugu. Horretaz gain, zera salatu nahi dugu: adineko emakume askok jasaten dituzten prekaritate egoerak, pobrezia eta utzikeria, jasotzen dituzten miseriazko pentsioak direla medio. Emakumeen heren batek baino gehiago 300 eta 600 euro arteko pentsioak dituzte. Guzti horri erantsi behar zaio zerbitzu eta laguntza publiko urriak, txirotasun egoeran bizitzera behartzen dituen. Guzti horregatik salatu nahi dugu: miseriazko pentsioak emakumeenganako indarkeria matxista bultzatzen du.

Zozketak

BIZIKALE

Dendarien azoka: Lucio Oruesgasti
Pintxo lehiaketa: Juan Manuel Berroeta
MGS: Ainhoa Rodriguez
MAPFRE: Koldo Ugarte

MESEDETAKO JAIK

- 1. saria:** Alejandro Laka
- 2. saria:** Igor Gómez

Negulekuak 2015

Abenduaren 27tik 30era Aiaraldea eskualdeko Tertangan.

Adina: 12-16 urte (DBHko gazteak).

Izena emateko epea: Pil-pileanen abenduaren 12a baino lehen.

Informazio gehiago: Gaztelekuan eta Pil-pileanen.

Bittartetik



Ramón
Leturiondo

Soraluzeko ikastolaz hainbat oroitzapen

1978 eta 1981 urteen artean aritu nintzen lanean Plazentziako Ikastolan. Tarte laburra bizitza batean, baina benetan mamitsua eta bete. Horrela, eskatu didatenean ea zerbait idatziko nukeen garai haietako euskararen egoeraz eta Ikastolaz, nire burua bueltaka eta bueltaka hasi da.

Garai hartako zatiketa eta tirabira guztien gainetik proiektu eta ilusio jakin bat loratu zen, denok elkartu gintuena, alegia euskara berpiztea eta berreskuratzea. Eta hauxe da nik azpimarratu nahi nukeen ideia: helburu hori lortu nahi izan zela herri guztiaren partaidetzarekin. Helburu hori lortzeko, Soraluzeko Ametsa Ikastola sortu zen 1966an eta hurrengo urtean, 1967an, klaseak ematen hasi ziren. Bai Udaletxeak nahiz Elizak hasieratik bere laguntza eskaini zuten eskolako emateko lokalak utziz. Hori garrantzitsua izanda, ezin da aipatzeke utzi era guztietako herritarren parte hartzea: gazte, heldu eta zahar, ugazaba eta langile, gizon eta emakume, hainbat ideologia eta alderdi politikokoetako herritarrek... Zenbat eta zenbat guraso –eta batzuk gurasoak ez zirenak ere– ez ote zuten parte hartu urte haietan Ikastolako batzarretan?

Nik garai haietaz oroimen onak beste-rik ez dauzkat.

Uste dut nire belaunaldia pozik eta harro egoteko moduan dagoela. Gure gazteak erregistro ezberdinetan euskara erabiltzeko gauza direla ikusteak harrotasunez betetzen nau. Bejondeigula soraluzetarroi!

GABONETAKO ZOZKETA HANDIA

4000 €

2015eko 1go hiruhilabetean
Bizikaleko komertzio eta
tabernetan gastatzeko

Zozketan parte hartzeko Bizikaleko
komertzioetan salgai egongo diren boletoak
erosi behar dira. Boleto bakoitzak 25 €
balio ditu eta barraketarako 4 tiket ditu opari.



“Zapatuetan giroa sortu nahi dugu herrian”

Idoia Casado Plata (1990, Soraluze)

Intxixu tabernako jabea eta Giro-giro egunak egitasmoaren sustatzailea.



Idoia Casado, Intxixu tabernako jabea

Herriko hainbat tabernarik bultzatuta zapatuetan herrian giroa sortzea helburu duen *Giro-giro egunak* egitasmoaren barruan, *Tabernatour zirkuitoa* jarriko dute martxan zapatu honetan. Idoia izan da sustatzaile nagusietako bat. Eibarko esperientzia ezagutu eta herrirako baliagarria izan daitekeela pentsatu zuen.

Zer da *Tabernatour* zirkuitoa?

Hamar tabernez osatutako zirkuitoa da. Txartelak banatuko ditugu taberna guztien izenekin, eta zapatuetan, bezeroek zigilu bana jasoko dute kontsumizio bakoitzeko, eta ez du derrigor alkoholduna izan behar. Taberna guztietako zigiluak lortzen dituenak hilero egingo dugun zozketan parte hartu ahal izango du. Saria 400 euroko balioa duen opari sorta bat izango da, herriko produktuak eta kanpokoak jasoko dituena.

“Zirkuitoak, tabuak alde batera lagatzea eskatzen du”

Jendeak bere zirkuito propioa izaten du.

Bai, horregatik. Soraluzen taberna gutxi daude eta bakoitzaren giroa oso lerrotuta dago. *Tabernatour* zirkuitoarekin elkarbizitza sustatu nahi dugu herritarren artean, eta lagunarteak orain arte sartu gabeko tabernetan sartzera gonbidatu nahi ditugu. Horretarako, tabuak alde batera laga beharko dira. Horrela

bakarrik lortuko dugu Soraluze bizi-bizi mantentzea.

Tabernarien arteko elkarlana nobedadea da...

Bai. Konturatu gara elkarlanean jardunda eta gure aldetik jarrita irabazteko asko dugula. *Tabernatour* zirkuitoan gehienok parte hartuko dugu eta *Giro-giro egunak* egitasmoa zabalik dago eta egongo da.

Zapatuak izango dira *Giro-giro egunak*. Zergatik?

Barixakuetan ez baina zapatuetan herriko gazte eta ez hain gazteak direnak Eibarrera edo inguruko herrietara joaten dira eguna pasatzera, txikiteora edo

afaltzera, eta herrian ez da girorik egoten. Soraluzetarrak herrian gera daitezen nahi dugu eta konturatu gara inguruko herriek eskaintzen duten aisialdia eskaintzen hasi behar dugula, baina gure erara.

“Zapatuetan herritarrek herrian gera daitezen nahi dugu”

Baduzue buruan ideia bat?

Bai. Zirkuitoarekin hasiko gara baina zapatuak girotzeko gauza gehiago antolatu ditugu: musika, bestelako ekimen ibiltariak... Ezin ditut aurreratu.



Herriko tabernariak.



Bost emakumek eskatu dute laguntza gizarte zerbitzuetan



Lehiaketako irabazleak.

Udaleko gizarte zerbitzuek genero indarkeriari lotutako bost laguntza eskaera tramitatu dituzte aurtengo ikasturtean zehar, iaz lau. Izan ere, gizarte zerbitzuek laguntza psikologikoa eta lege aholkularitza eskaintzen dizkiete genero indarkeria sufritu dutenei eta

laguntza ekonomikoak tramitatzeko baliabideak zeintzuk diren azaldu ere bai. Eskatzaileen gaztetasuna kezkarria da, aurtun 25 eta 40 urte bitarteko emakumeek jo dute gizarte zerbitzuetara eta gizarte laguntzaileak azaldukoaren arabera "gero eta gazteagoak dira genero indarkeriari lotuta laguntza eskatu duten emakumeak".

Antzerkia abenduaren 14an

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren harira antolatutako egitaraua abenduaren 14an itxiko da, "La máquina del dueño" helduentzako antzezlanarekin. "Soraluze Beldur Barik" saria, berriz, Olatz Sebaiek eta Ekaitz Uzinek irabazi dute "4 aldiz ni" lanarekin eta Silvia Loscosek eta Nerea Nievasak ekoiztutako lanak epaimahaia- ren aipamen berezia jaso du.

FotoNotizia



Andoni Ricok modelo fotogenikoenaren saria jaso du

Donostiako modelo agentzia baten bitartez lortu du Andoni Ricok (Soraluze, 1994) Euskadi ordezkatzeko "Guapo de España" lehiaketan. Sariaketa aurreko zapatuan egin zen Fuengirolan eta soraluzetarrak azaldu duenez "irabaztea baino ondo pasatzea eta esperientzia berriak bizitzea" izan du helburu. Hala ere, modelo fotogenikoa izendatu zuten eta "Guapo fotogenia" sariarekin egin zuten etxerako bidea.

Elikagai bankua hornitzeko janari bilketa

Bergarako elikagaien bankuak oinarriko beharra dutenei laguntzeko janari bilketa egingo du asteburuan, misio-taldeak lagunduta. Zekaleak, lekaleak, pasta, esnea, olioia, atun-latak, konpresak... Amparo eta Salon dendan, Montse frutadendan eta Kooperatiban jasoko dituzte elikagaiak, gaur eta bihar.

Erretzeari uzten laguntzeko hitzaldia

Erretzeari uzten laguntzeko hitzaldia eskainiko dute osasun zentroko erizainek abenduaren 11n, eguenean, 19:00etatik 20:30era antzokian. Bertan asmoa da sortzen diren taldeekin urtarrean tailerrak egitea.

Afari begano-begetarianoak gaur gaztetxean

Gaur, 20:30etik 22:00etara bitartean afari begano-begetarianoak eskainiko ditu gaztetxeen tripafesta taldeak. Berdurak tenpuran, seitana saltsan, soja hamburgesak, zopa eta enpanadillak eskainiko dituzte menuan, eta postreerako, Lelleto bakarleri italiararen emanaldia antolatu dute.

101 urte bete ditu Cecilio del Olmok

Nagusien egoitzan bizi den Cecilio del Olmok 101 urte bete ditu. Goizean alkatearen eta senideen bisita jaso zuen eta lore-sorta ederrak eraman zizkioten opari. Arratsaldean egoiliar guztiakin ospatu zuen bere eguna, txokolatzeko pastel goxoak lagunduta. Zorionak Cecilio!



IZAGUIRRE
Igeltseritza

943 75 11 62 • 649 867 289

Javier Alberdi

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

Birziklatzea eta berrerabiltzea sustatzeko jolasak

Zero Zabor bidean jolastu! gynkana antolatu du Debanatura elkarteak biharko, 17:00etatik 19:00ra kiroldegian. Jolasak lehen hezkuntzako 2. mailatik 6. mailara arteko umeei zuzenduta daude, eta hondakinen birziklatzeak eta berrerabiltzeak duen garrantziaz ohartaraztea lantzea dute helburu.



Bigarren eskuko azoka

Abenduaren 13rako bigarren eskuko azoka antolatu dute DBHko ikasle eta Alkarrekineko jasangarritasun taldekoek. Etxean bildutako produktuak euro gutxiren truke jarriko dituzte salgai 10:00etatik 14:00ra kiroldegian. Trukean aritzeko aukera ere egongo da, eta nahi duenak bere postua jarri dezake, abenduaren 10a baino lehen 665 734043 (Josune) telefonoan ize-na emanda.

Pintado eta Galarraga omendu dituzte

80 urtetik goragoko bazkideak omentzeko bazkarian Mercedes Pintado eta Manuel Galarraga omendu dituzte Itxaropenan. Abenduaren 22an Santo Tomas eguna ospatuko dute eta karta-txapelketako sari-banaketa ekitaldia egingo da.



Sare aurkeztuko dute martitzenean

Dispertsioarekin amaitzea helburu duen "ezberdinen arteko" herritar-sarea aurkeztuko dute martitzenean, 18:30ean herriko antzokian egingo duten aurkezpenean.



Sareri babesa eman dioten herritar batzuk. Iturria: Fernan Oregi.

Presoen dispertsioak eragindako ondorioak ezagutarazi eta gizartearen presioaren bitartez espetze politika aldaraztea dute helburu. Apirilera bitartean "ahalik eta soraluzetar gehienak Sarekide egitea" izango dute zeregin. Adierazi dutenez, "giza-eskubideen alde dauden herritar guztiek dute lekua bertan".

Dispertsioaren liburuak

"Sarekideak" egitearekin batera, mundu guztian dispertsioaren berri emateko zabalduko dituzten 500.000 liburuetakoa hainbat banatuko dituzte herrian. "Espetxeetan presoekin eta senideekin egiten dihardutenaren berri emango diogu mundu guztiari. Ze, dispertsioa badela jakitea eta benetan zer den ezagutzea ez da gauza bera". Esaterako, 20 urte espetxean eta azkenengo 11 urteak Huelvan daramatzan Lurdes Txurruka herritarraren kasua aipatu dute: "senideek, lagunek eta berak baka-ririk dakite egoera horrek eragiten dituen ondorioen berri".

Kandelaz osatutako mosaikoa herrian

Soraluzeko Gure esku dagok antolatuta, "Ixotu erabakia!" lemapean, 1.500 kandelaz eta musikaz osatutako mosaiko erraldoia egingo dute abenduaren 13an arratsaldeko 19:30ean Plaza Zaharrean. Datozen egunetan, 20 zentimotan kandelak saltzeko mahaia jarriko dute kalean.



Azaroan zubian egindako ekitaldia.

ALKARREKIN soraluze eginez

ONTZIRATU ZAITEZ

Urriko irabazleak
- Anahi Maquinay - Margarita Uriarte

Saria: 25€ herriko komertzioetan gastatzeko
Oharra: Abenduan azken zozketa egingo da
Jasotako tiket kopurua: 239

ALKARREKIN

Elkarlanaren kultura

150 lagun inguru batu ziren joan zen zapatuan Alkarrekinek antolatutako batzarrean: herritarrak, teknikariak eta ordezkari politikoak.

Urtean zehar Alkarrekinek lan-talde eta udal-batzordeetan landutako egitasmoen inguruan jarduteko herritar multzo nahiko zabala batzea, eta berau "inflexio puntu" bihurtzea zen antolatzailerik euren buruari ezarri zioten helburua. Batzarraren amaieran "lortutzat" eman zuten helburu hori.

Batera jardutearen "ilusioa"

Hurreratu ziren herritarrek banan-banan ezagutu ahal izan zituzten hamabi egitasmo nagusien inguruko proposamenak, Udal-pilotalekuan lan-taldea antolatu zen zirkuito moduko batean. "Horrenbeste informazio prozesatzeko eta zenbait kezka argitzeko denbora tarte laburregia" izan zela aipatu bazen ere, galdetutako herritar eta alderdi politiko guztietako ordezkariak bat etorri ziren batzarra positiboki baloratzekoan.

"Iritzi-truke eta harreman-gune aberatsa sortu da"

Batzarrean "hainbat sentsibilitatetako herritarrak parte hartzen ikustea", "alderdi politikoetako ordezkariak elkarrekiko errespetuan eta elkarlanean" somatzea, "iritzi-truke eta harreman-gune aberatsa" sortu izana... eta horrek eragiten duen "ilusioa" izan ziren batzarraren



Herritarrak lan taldeetan banatuta.

amaieran gehien entzun ziren balorazioetako batzuk. Gainera, herritar askok, etorkizunean prozesuan parte hartzeko asmoa adierazi zuten. Dagoeneko, 100 lagunetik gora dira Alkarrekinek lan-talde eta Udal-batzordeetan parte hartzen dihardutenak.

"Dagoeneko 100 lagunetik gora parte hartzen dute"

Alkarrekinek webgunea

Udalak jakinarazi duenez, prozesuaren inguruko informazio guztia jasoko duen webgunea martxan izango da abendurako. Informazioa eskuratzeko gunea izateaz gain, "egitasmoen eta herriaren inguruko iritzi-trukerako komunitate" ere bihurtu nahi dute. Azken batzarraren inguruan osatutako ikusentzunezkoa ere bertan esekiko dute.

Argazkiak: Fernan Oregi



David eta Roke Jasangarritasunaren egitasmoak azaltzen.



Maialen eta Juan Karlos Herri identitatearen lan taldearen azalpenak ematen.

PROIEKTU ETA EKIMENAK



Hirigintza planaren inguruko azalpenek jakinmin handia piztu zuten.

Hona hemen proiektu bakoitzaren barruan aurkeztutako ekimen deigarrietako batzuk:

HERRI IDENTITATEA: Sorapedia, herrirako wikipedia propioa sortzea; herri-antzerkia egitea umorearen tradizioa ardatz hartuta, etorkinen testigantza jasotzea.

JASANGARRITASUNA: Hondakinen mahaia osatzea, auzo-konposta gune berriak martxan jartzea, bigarren eskuko azoka antolatzea.

JARDUERA FISIKOA: Ohikoak ez diren kirolak praktikatzeko kirol eguna antolatzea, U deritzon orubean padel pista bat egokitzea.

EUSKARA PLANA: Haur eta gaztetxoaren artean erabilera bultzatzea, ezagutza maila altua dutenak aktibatzea, hizkuntz-aniztasuna kudeatzea.

MENDI ETA IBAIAK: Ibaian uretako ekintzak burutu ahal izateko hondoaren egoera aztertzea, Dolmenen Ibilbidea indartzea eta dibulгатzea, zortzi ibilbide berreskuratzea.

TOKIKO GARAPENA: Herrian elikagaien produkzioa bultzatzea, txanpon lokala sortzeko aukerak aztertzea, erleen polinizaio-gunea sortzea, enpresa eta Udalaren harreman-sarea indartzea, merkataritzaren plan estrategikoa garatzea, batzordea sortzea.

ONARRIZKO BEHAR SOZIALAK: Etxebizitza lan-taldea sortzea, egoitzarako bolondres-lana sustatzea, elikagaien bankua martxan jartzea, zurrumurruren tailerra egitea.

BERDINTASUN PLANA: Berdintasun-plana gauzatzea; berdinasunean oinarritutako gobernantza-eredua sustatzea, emakumeak ahalduz erantzunkidetzat bultzatzea, indarkeria matxistaren aurka egitea.

HIRIGINTZA PLANA: Mendiola eta Sologoeneko sarrerak hobetzea, SAPAn eta Santa Anan aparkalekuak egitea, zubi berria egitea Baltegietatik Ezozi bideko sarrerara, Olarako bideko eraikinak bota eta ingurua berritzea.

HEZKUNTZA PROIEKTUA: Herriko hezkuntza proiektua idaztea, eskolaz gain hezkuntza informala ere kontuan izanda, komunitatea saretzea.

IRISGARRITASUN PLANA: Gabolatseko aldapa egokitzea, espaloia eta errepidea berdinduz, eta Errabal kalean, Gaztelupe parean, autoen abiadura moteltzeko lur adokinatua ezartzea.

SMART CITY - HERRI ADIMENTSUA: Farolen argi linearen bitartez sare informatikoa zabaltzea, Udaletik kontrolatuko diren megafonia, taula elektronikoa, wifi sare eta abar ezarri.

Udal gobernua adierazi duenez, batzarrean azaldu ziren proiektuak izango dira 2015eko aurrekontuen "zutabe nagusia".

Iturria: Soraluze Udala.



HIART ARLUZIAGA Alkatea

“Aurrekontuak kultura politiko berriaren mesedetan jarriko ditugu”

Zein da batzarraren balorazioa?

Balorazio oso positiboa da; batetik, lortu dugulako hasieran asmo abstrakto samarra zena plan zehatz bihurtzea, eta, bestetik, hori soraluzetar askoren parte hartzearekin egin delako. Erakutsi dugu gai gairela komunitate moduan lan egiteko, eta horri esker, soraluzetar askoren artean energia positiboa sortzea lortu da. Herritarrak elkarlanean ikustea gauza ederra da.

Hemendik aurrera zer?

Egitasmoak martxan jartzeko ordua da. Herritarrak, teknikariek eta ordezkari politikoek elkarrekin lan egin beharko dute lan-taldeetan eta arloz arloko batzordeetan. Urtean zehar jarraipena egin eta datorren urterako proposamenak adosteko batzarrak egin beharko dira. Hori bai, prozesua berria da eta bizirik dago eta etengabeko egokitzapenak egin beharko zaizkio poliki-poliki. Aldaketa nagusia herrigintzan jarduteko moduan dago, eta erabakiak non hartzen diren dago gakoa. Kultura politiko berria garatzen dihardugu herritarrek erabaki ahalmen handiagoa izan dezaten, eta aurrekontuak horren mesedetan jarriko ditugu.

Zer inbertsio nagusi aurreikusten duzue?

Alkarrekin azaldu zirenak, esaterako, hirigintza plan orokorraren norabide nagusia ezarrita dago eta datorren urtean zehaztu egin beharko da. Argiteriari dagokionez, datorren urtean aldatuta izatea aurreikusten dugu, eta horrekin argindarraren kostua erdira murriztea. Bestetik, herri adimentsua edo smart city egitasmoa ere hor dago; Soraluze teknologia berrien laborategi bihurtuko da. Kiroldegi gaina zabaltzea... Hori izango da gainerako alderdiei aurkeztuko diegun proposamena.

Herri bizia gara, gero!

• Gaztañerre azoka



Aurten barazki-postu danak jaso zebeñ sarixa. Egixa esateko, danak merezi dabe podiumeko lehenengo mailan egotia.



Zer litzake Gaztañerre sukaldaririk barik? Eskerrik asko musutruk besterendako bazkarixa preparatzen jarduten dozuen kuadriliarendako (eta bitartian umezain egiten dozuenondako).

• Bizikale azoka



Dudarik ez dago: ahoz ahokua da egin leiken promozioñorik onena. Merkatarixen azokan jardun zebeñ andra bixok euki zebeñ zer promozionatu.



Aurten be exito! Beste behin aterri egin zebeñ eta jai-giro edarra sortu zan herrixan. Eske, jana eta edana ona ipiniz gero txaranga berez etortzen da!

• Musika eskolak 25 urte



Sortuko dira berriak... Musikazale gaztiak, herrixa musikaz alaitzen jarraituko dabenak...



Musikarixak bihar dittugu, kantuan eta dantzan egingo badogu. Segi ikasten, erakusten eta kaliañ joteten! *Argazkiak: Fernan Oregi*

Javier Alonso Zelaleta
 MEDIKU ESTOMATOLOGOA
 K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

Mendata

Giro euskalduna
 Etxean egindako pizzak eta txipirolak

Iritzia



Irene Alvarez

Gero eta gusturago kiroldegiarekin

Lau urte daramatzat kiroldegira joaten eta gauza dezente ditu hobetzeko, baina gutxika-gutxika ari dira gauzak aldatzen. Rokodromoa jarri berri dute eta nire ustez erabaki ona izan da, jendeak ez baitzuen eskalada ezagutzen. Oso garrantzitsua iruditzen zait futbola ez den beste kirol batzuk sustatzea eta herriko umeez eskola-kirola programaren bitartez eskalada praktikatzeko aukera izan dute. Begirale moduan aritu naiz beraiekin, astean lau egunetan ordubeteko saioak egin dituzte, eta, ikastaroa bukatutakoan, asko eta asko penaz geratu dira. Oraindik jende gutxitxo badabil ere, orokorrean uste dut jendeak rokodromoa erabiliko duela. Batzuk, zailegia dela diote eta zentzu batean arrazoirik ez zaie falta, ikasten ari denari asko kostatzen baitzaio paretan zintzilik egotea, baina horrek konponbide erreza du: helduleku batzuk lekuz aldatu eta kitted!

Behin eskatzen jarrita, gimnasioari leku handiagoa emango nioke eta makina berriagoak jartzea litzateke onena. Igerilekua ondo dago baina jakin egin behar da zein ordutan joan jende gehiegirekin topo ez egiteko (ikastaro ordue-tan gehien bat). Bestalde, nagusientzat jarduera gehiago jarriko nituzke, aqua-gim edo dantza esaterako.

Ordutegi zabalagoak herritar gehi-go animatuko ditu kirola praktikatzera eta esan behar dut bertako langileen tratua bikaina dela. Giro ederra dago kiroldegian eta zer hobetu badu ere, pozik nago egiten ari diren lanarekin, poliki-poliki badoa aurrera!

Urtarrilaren 1etik aurrera kiroldegiak ordutegi zabalagoa izango du

Azaroko proba-epa pasatuta, zehaztu dute urtarriletik aurrera kiroldegiak izango duen ordutegi berria. Astelehenetik eguenera bitartean eguerdian ere zabalik egongo da, astelehen eta asteazkenetan lehenago, goizeko 7:00etan zabalduko dute eta martxora bitartean zapatu arratsaldetan ere egongo da zabalik. Abonatu kanpaina berria abenduaren 15ean hasiko dela jakinarazi dute arduradunek.

	Kiroldegia	Igerilekua
Astelehena	07:00 - 21:30	07:00 - 20:30
Asteartea	08:30 - 21:30	08:30 - 20:30
Asteazkena	07:00 - 21:30	07:00 - 20:30
Osteguna	08:30 - 21:30	08:30 - 20:30
Ostirala	08:30 - 21:30	08:30 - 12:00 15:00 - 20:30
Larunbat, igande eta jaiegunak	09:00 - 13:00 Azarotik martxora larunbatak: 09:00 - 13:00 16:00 - 19:00	

Herri-kirolak praktikatzeko taldea sortu nahi dute herrian

Hainbat herritarrek herri-kirolak praktikatzeko adin ezberdinetako talde mistoa sortu nahi dute. Lehenago baina herri kiroletan jarduteko edota hauek bultzatzeko interesik badagoen jakin nahi dute, "batzar ireki bat egin eta asmoak batzeko". Interesa dutenek 605 705378 (Arkaitz) telefonora deitu dezakete.

Jokin Muñoz bigarren Algortara igoeran

26 lagunek hartu zuten parte aurreko zapatuan Mendaron jokatu zen Alkortara igoeran eta Jokin Muñozek bigarren sailkatzea lortu zuen, maldan gora 4,7 kilometro egin eta gero, 22 minutu eta 42 segundoko denboran heldu zen helmugara. Datorren abenduaren 8an, Durangoko krosean korrituko du eta abenduaren 28an Amurriokoan. Muñozek adierazi du bi lasterketa hauek datorren urteko dualoi eta triatlaiak prestatzeko erabiliko dituela.



Muñoz, frogan zehar. Iturria: elgoibarren.net

Jatearen plazera. bertatik bertara

Batzoki
JAYNTXKA

ogibitartekoak eguneko menua
asteburuko karja razioak

Erreserbak: 943 75 20 16

JUAN MARI
ARRXINDEGIA

943 75 24 40
MERKATU PLAZA

ESKERRIK ASKO PLAZENTZATARRI
GUCIA USANDEKO KONFUANTZAGATIKU

Gaztelupek Gaueko entziklopedia koxkorra estreinatuko du Durangon



2princesesbarbudes jostailuzko trikitiarekin.

Enciclopèdia baixeta de la nit katalanezko diskoaren euskararako egokitzapena egin du 2princesesbarbudes taldeak eta Durangoko azokan aurkeztuko du Gaztelupek, abenduaren 5etik 8ra. Pilarik gabeko jostailu-tresnekin egiten dute musika eta beraiek ondutako 13 abesti batu dituzte

“Gaueko entziklopedia koxkorra” liburu-diskoan. Maialen Lujanbiok disko honen azken kanta idatzi eta abestu du eta Joseba Tapia bakarkako pasarte bat jotzera ausartu da jostailu-trikitarekin. Bestalde, Gaizka Azkaratek Azkaiter Peloxekin grabatutako lana, Jon Gurrutxaga elgoibartarraren “Hitz Lauz” diskoa, Markos Untzetaren “Seinaleak” eta La Jodedera, Capsula eta Victor Aneirosen lan berriak ere aurkeztuko ditu Gaztelupek Durangon.

Haitiri laguntzeko argazki erakusketa

Abenduaren erdialdean Kontrargik dohaintzan emandako hamar argazki jarriko dituzte salgai “arrazoizko prezioan” misio-taldeak Gaztelupe tabernan. Batutakoa, Haitiko Marbial herriko eskola mahaiz eta aulkiz hornitzeko egiten ari diren diru-bilketarako izango da.

FotoNotizia



Abesbatzak eskerrak eman nahi dizkie herriko kantuzaleei

Santa Zezilia egunean abesbatzakoekin kantatzera edota entseatzera animatu ziren herritarrei “eskerrik beroenak” helarazi nahi dizkiete. Hurrengo hitzordua abenduaren 20rako zehaztu dute, Debako Aitzuri abesbatzarekin batera Gabriel Faureren “Requiem” obra kantatuko dute elizan, baita zenbait gabon kanta ere. Kantuzaleei dei egin nahi diete etorkizunean antolatuko dituzten saio irekietan parte hartzera. Saskia Raquel Criadori egokitu zitzaion. Argazkia: Fernan Oregi.

Iritzia



Maialen Alberdi

Musika lagun ona da

Badira urte batzuk Ezoziko Ama Abesbatzaren nere lehen ensaiora jua nintzanetik. Buruan daukat momentuan sentitzen neban beldurra; ezagunak ziran, baina iñoiz tratu handirik izan barekuak. Nik esperientzia gutxi neukan eta lotsa-lotsa eginda nenguan. Zuzendarixak nun jarri agindutakuan, atzera begiratu eta nere korukidiak topatu nittuan, Abel, Jesus eta abarrak irribarre zabal batekin neri begira. Momentuan konturatu nintzan abesbatzan egotia esperientzia zoragarria izango zala.

Orduetik, lan ordu gogor asko izan dira, baina baita irteera eta barriak. Abesbatzak neri eskaini izan dostana ez da bakarrik musikaizan, baita lagun onak eta adiskidetasun sentimendu itzela ere. Musikazalio talde horren barne ez baikara danak musika ikasitakuak, badare afiziño hutsez darenak. Ondorioz, sarritan ikusi ahal da korukide bat albokua laguntzen. Honako hau izan zan gehixen gustatu jatana: batzokiko gela hartan nabari dan laguntasun sentimendua.

Musika maitte dogunon artian gañera, adin eta mota askotakuak gare eta honek, giro paregabia sortzen dau, bai lanerako bai ondo pasatzeko. Lagun talde horren parte izatiak mundu berri bat zabaldu zoztan; lokaletik irten eta Plaentxin beste gauza batzuk darella jakitzia, jende berrixa ezagutzia eta aparteko esperientziak bizi ahal izatia.

Beraz, gaur emon jatan aukeriakin, abesbatzari eskerrak ematia nahi neuke, esperientzia guzti horregaittik eta herriko beste edozeini gomendatzen dotsat gure artera etortzia, merezi dau-eta musikaz hain modu politian gozatiak.

Elizpe
Hortz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia (kustozina)
- Implantak

DOHAINIKO BERRIKUNTZAK
FINANTZAKETA ZURE NEURRIBA
KONPROBATORIK GABEKO AURERENTZIA

MUTUALIA, PADI (baumen arretarako hortz programak)

Tel. 943 75 25 67
Eliaburu 3 beheko, Soroluzo

AURREZTU ENERGIA

Berotu ebiea
BIOMASA ETA
EGURREZKO
galdakarekin

fontaneria
San Andres
iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

Zorion agurrak




Haizea
Muxu goxo asko Oartzundik, zure lagun Kattalinen partez!



Mayara Zarobe
Azaruan 2xan, 12 urte!
Zorionak preioxoa, asko maitte zaittugu! Muxu haundi bat familixian partez.




Naroa Gil
Azaruan 8xan 11 urte!
Zorionak, asko maitte zaittugu!



David Palacin eta Alberto Alvarez
9 urte eta 7 urte bete ditzuzte! Zorionak bikote!
Maitte zaittuztegun danon partez, muxu handi bana.



Amama Amelia eta aitxitxa Jose Antonio
Abenduan 7ian eta 7xan.
Zorionak eta muxu potolo bana, etxeko danon partetik!



Manex Osinaga eta Miren Osinaga
Azaruan 21ian eta abenduan 11n 11 eta 7 urte!
Zorionak bioi eta muxu haundi bat etxekuen partez!!



Itziar Gantxegi eta Mila Gantxegi
Azaruan 12xan eta azaruan 20xan
Zorionak eta besarkada haundi bat etxekuen partez, bereziki Xubanen partetik!!!



Argateburuko 8 anai-arrebak
Denen artean 638 urte bete ditzuzte.
Zorionak sendi guztiaren partetik!



Eñaut Aiartzaguena
Azaroaren 25ean 26 urte.
Zorionak eta segi bizitza tiratan marrazten!!!
Pil-pileaneko lagunak

Jaiotakoak eta hildakoak



Mikel Gallardo Ariznabarreta
Hodei Oregui Latasa
Adam Boussak Gherid
Enaitz Arriola Romero
Izar Uzin Zubizarreta



Rafael Mendizabal Arana
Justo Rodriguez Alonso
Maria Martinez Saenz

Lehiaketa

Zein da?



Saria:
Markos Untzeta eta Jon Gurrutxagaren diskoak



Aurreko aleko erantzuna
Txaro Lete, Itxaropenako juntako kidea



Irabazlea
Iban Zarobe



Oharra: Lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketa alea atera eta hurrengo barixaku eguerdian egiten dugu.

Deitu **943 75 13 04** edo e-maila bidali **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.

Euskalzaletasunaren alde:





Iturria: Musika eskola. Informazioa: Itziar Burunza.


Musika-eskolako ikasleak

Musika-eskolak mende laurdena bete du eta duela hamar urte bertan ikasten zuten musikari gazteetako batzuk dira hauek. Zigor Martinez bergararrak gidatzen zituen, bera musika-eskolako bandako irakaslea ere bazen. Argazkia 90. hamarkadan aterata dago, duela 12 urte inguru, musika-eskola oraindik institutuan zegoela.

Argazkian:

Goian, ezkerretik eskumara: Aritz Arizaga, Inazio Elorza eta Beñat Ariznabarreta.

Behean, ezkerretik eskumara: Ander Elizburu, Aitor Uriarte, Aimar Bengoa eta Daiana Rico.



**RAFAEL PLAZAOLA ARANA
(TURKUA)**

AZAROAREN 11N HIL ZEN
61 URTE ZITUELA

Gure Rafael agurtu genduenetik denbora pasa eta sendimenduak, poliki-poliki, baretzen doazelarik, berari buruz jaso ditugun maitasun adierazpenak, aitortu eta eskertzeko toki eta une egokia dela deritzogu, soraluzetar guztion elkargune den Pil-Pilean aldizkarria.

Ekitaldian entzun genituen hitzak hiltzaturik gelditu zaizkigu bihotzean. Bai orduan gurekin izan zinetenoi, baita aurrez eta ondoren, Patxirenganako adeitasuna adierazi zenutenoi, bihotzez, eskerrikasko.

Rafael "Patxi Turkua"ren familia

"Pertsona on-hutsa, leiala eta lagunaren lagun izan zahalako, ez zaitugu ahaztuko"

Gaztetako koadrila



ANGEL IRAZABALBEITIA

1994KO AZAROAREN 18AN LOIUN HIL ZUTEN TIROZ

*"20 urte eta beti nere oroimenean
20 urte eta beti nere bihotzean
Beti maiteko zaitut"*

Lurdes, Huelvako espetxetik

TXURRUKA

JATETXEA

Gabonetan etxera eramateko janaria

Sarrerakoak

- Ahate foie grass-a etxean egina 7.50 €
- Arrain eta itsaski zopa 5.00 €
- Itsaski eta zapoa olio ozpinetan 6.50 €
- Bakailuz beteriko pipar beteak 1.60 € (uni)
- Kroketak 0.35 € (uni)
- Frito nahasiak 5.00 €
- Zigala rabiolia bere saltsan 8.00 €
- Arrain eta itsaski budina 3.50 €

Arrainak

- Legatza saltsan almejekin 11.50 €
- Legatz kokotxak almejekin 13.00 €
- Legatz frijitu betea 9.00 €
- Bakailua saltsan 10.00 €
- Bakailua kokotxak almejekin 9.00 €
- Txipiak tintan 9.50 €
- Zapoa eta otarrain brotxetak 5.50 €
- Zapoa amerikar erara ganba eta almejekin 17.00 €

Okelak

- Txahal masailak ardo beltz saltsatan 9.50 €
- Bildotsa saltsan 9.00 €
- Azpizuna eta foiez beteriko hostorea 12.50 €

24 EDO 31RAKO ESKAERAK

Eskaerak egiteko azken eguna: abenduak 21

Jatetxean jasotzeko egunak: abenduaren 23an 11:00etatik 16:00etara eta abenduaren 24an 11:00etatik 14:00etara.

Ordutegi berdina abenduaren 30 eta 31n.

Etxera eramango dizugu 3.50 eurogatik.

Tel. 943 75 15 81



Deskontuak

Bizikale elkarteko komertzioek deskontuak eta eskaintza bereziak eskainiko dituzte hilero. Eskaintza baliagarria **azaroaren 3tik 16ra** arte.

TXURITXU

Gosaria: kafesnea + tostada edo kruasana + zukua

3€

Lehen
5,5€

Deskontua
%45



Izena: _____

Tel: _____

KOOPERATIBA

Neguko erropak BEZik barik

80€

Lehen
101€

Deskontua
%21



Izena: _____

Tel: _____

KONTULAN AHOLKULARITZA

Komunitatearen legezko dokumentazioa

126€

Lehen
180€

Deskontua
%30



Izena: _____

Tel: _____

GAZTELUPE

Etxeko pintxoa (hanburgesa)

1€

Lehen
1,5€

Deskontua
%33



Izena: _____

Tel: _____

Zozketa

60 euroko bono bat zozketatuko da hilero. Parte hartzeko, eskaintzaren bat kontsumitu behar da eta norbere datuekin betetako fitxa entregatu.

Azaroko zozketaren irabazlea: Ane Muro

NIK,
HERRIAN

